# Iragarpenak

## Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

### OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

LEHIAKETA PUBLIKOA, 1998. urteko lorazaintza zerbitzua Lakuako administrazio eraikinetan. 19721

## Beste Iragarpen Ofizial Batzuk

### BILBO HANDIA ESKUALDEKO UREN PARTZUERGOA, HORNIDURA ETA OSASUNBIDEA

IRAGARPENA, «Nerbioi-Ibaizabal tarteakagailua, Unibersitatea–Areatza tarteunean barnesarturiko Eraldaketen Trazaketarako Proiektuaren» Okupazioaren Aurreko Aktak egiteari eta ukitutako ondasun eta eskubideen titularrei dei egiteari buruzkoa. 19723

# Anuncios

## Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

### DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

CONCURSO PÚBLICO de servicio de mantenimiento de jardinería en el complejo administrativo de Lakua durante 1998. 19721

## Otros Anuncios Oficiales

### CONSORCIO DE AGUAS, ABASTECIMIENTO Y SANEAMIENTO DE LA COMARCA DEL GRAN BILBAO

ANUNCIO relativo al levantamiento de Actas Previas a la Ocupación del Proyecto «Modificación del Trazado del Proyecto Interceptor Nervión-Ibaizabal, Tramo Universidad-Arenal» y convocatoria de los titulares de los bienes y derechos afectados por su ejecución. 19723

# Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

**Zk-6324**

20/1997 LEGEA, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

ABENDUAREN 4KO 20/1997 LEGEA, IRISGARRITASUNA SUSTATZEKOA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Bizitza sozialean eta komunitarioan sartzea eta parte hartzea, bidezko den helburua ez ezik, pertsona orok edozein gizarte aurreratutan duen nahia ere bada. Halere, sarri askotan, eskubide horietaz baliatzea zaildu eta eragotzi ere egiten dute fisikoak zein komunikazioz-

# Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

**N°-6324**

LEY 20/1997, de 4 de diciembre, para la Promoción de la Accesibilidad.

Se hace saber a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

LEY 20/1997, DE 4 DE DICIEMBRE, PARA LA PROMOCIÓN DE LA ACCESIBILIDAD.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La integración y la participación en la vida social y comunitaria constituyen no sólo una aspiración legítima, sino un deseo de toda persona en cualquier sociedad moderna. Sin embargo, en muchas ocasiones el ejercicio de estos derechos se ve dificultado e incluso

koak diren oztopoek, pertsonak era normalean moldatzen ez baitute uzten. Gauzak horrela, ingurune fisikora eta komunikaziora irisgarritasuna izatea funtsezko elementuak dira, herritar guztiek oinarrizkotzat definitzen diren eskubideez gozatu dezaten ahalbideratzeko.

Gizarteak, orohar, eta botere publikoek haren ordezkari direnez, sustatu eta bermatu egin behar dute herritar guztiak ingure fisikora eta komunikaziora iristea. Botere publikoen ihardunak ezin du, inolaz ere, elkartearen ihardun zuzena ordeztu edo murriztu; alderantziz, inguru fisikora eta komunikaziora iristeko zailtasun handienak dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzea xede duten herritar-erakundeen ekimenak sustatu behar ditu.

Euskal Autonomi Elkartean etxegintza eta hirigintza-oztopoak kentzeari buruz indarrean dauden xedapenak, aurrerapausoa izan dira, eman zirenetik, aipatutako helburua lortzeko. Dena dela, zenbait aldetan izan den zehaztapen eskasak, eta jarraipena eta kontrola egiteko bideen faltak, behin eta berriro ez betetzea ekarri dute ondorio, eta xedapen horiek, azken finean, egun aurkezten diren helburuak lortzerakoan egoki ez diren egiterapide bihurtu dituzte.

Gaur egungo gizartean, gero eta biziraupen handiagoa dagoela eta istripuz edo gaixotasunez mugitu eta komunikatzeko gaitasuna murriztuta duten pertsona asko eta asko dagoela eta inoizka mugikortasuna mugatuta duen pertsona-kopuru garrantzitsua daukagula, irisgarritasun-baldintzak hobetzeak bizi-kalitate hobea ekarriko du ondorio gisa nola mugitzeko eta/edo komunikatzeko zailtasunik handienak dituzten pertsonentzat hala gizarte guztiarentzat.

Nazio Batuen Batzar Nagusiak, 1993ko abenduaren 20ko 48/46 Erabakiz, arau estandarrak hartu zituen gutxituen aukeren berdintasunaren arloan, eta helburu orokortzat ezarri zuen pertsona horiek gainerako herritarrek dituzten eskubide eta betebehar berberez baliatzen direla bermatzea, izan ere, helburu hori Europako Batzordeak 1994ko uztailaren 27an onartutako «Europako Gizarte Politika-Batasunerantz Emandako Aurrerapausoa» Liburu Zurian jasotzen da.

Langileen funtsezko eskubide sozialei buruzko Elkarte Agiriak, Estrasburgoko Europako Kontseiluak 1989ko abenduaren 9an onartuak, ezartzen du minusbaliotasunen bat duen pertsona orok, horren jatorria eta izaera kontutan hartu gabe, integrazio profesional eta soziala ahalbideratzeko neurri gehigarriez baliatzeko aukera izan behar duela, neurriok, interesatuen ahalmenaren arabera, ergonomiari, irisgarritasunari, mugikortasunari, garraiobideei eta etxebizitzari buruzkoak izan behar dutelarik.

Europako Batasuneko Kontseiluaren eta horko kide diren estatuetako gobernuetako ordezkarien 1996ko abenduaren 20ko Erabakiak, minusbaliotasunak dituz-

impedido por la existencia de barreras, tanto físicas como de comunicación, que imposibilitan un normal desenvolvimiento de las personas. En estas circunstancias, la accesibilidad al medio físico y a la comunicación constituyen elementos fundamentales para posibilitar el disfrute por toda la ciudadanía de unos derechos definidos como básicos.

La sociedad en su conjunto, y los poderes públicos como representantes de aquella, deben favorecer y garantizar el acceso al medio físico y a la comunicación de toda la ciudadanía. La acción de los poderes públicos no debe, en ningún caso, sustituir o coartar la acción directa de la comunidad, sino muy al contrario impulsar aquellas iniciativas de entidades ciudadanas cuyo objetivo sea el logro de una mejora de la calidad de vida de aquellas personas con mayores dificultades de accesibilidad al medio físico y a la comunicación.

Las disposiciones en vigor sobre eliminación de barreras arquitectónicas y urbanísticas en la Comunidad Autónoma del País Vasco han supuesto, desde su promulgación, un paso para la consecución del objetivo indicado. Sin embargo, la escasa concreción en algunos aspectos, y la falta de mecanismos de seguimiento y control, han motivado su reiterado incumplimiento y han convertido en definitiva a dichas disposiciones en instrumentos poco apropiados para la consecución de los objetivos actualmente planteados.

En la sociedad actual, con una esperanza de vida en constante progresión y con un gran número de personas que por accidente o enfermedad han visto disminuida su capacidad de movimiento y comunicación y con un importante número de personas que circunstancialmente ven limitada su movilidad, la mejora de las condiciones de accesibilidad redundará en una mayor calidad de vida de las personas con mayores dificultades de movilidad y/o comunicación y de la sociedad en su conjunto.

La Asamblea General de las Naciones Unidas, mediante Resolución 48/46, de 20 de diciembre de 1993, adoptó las normas estándar en materia de igualdad de oportunidades de las personas con minusvalía, estableciendo como objetivo global el garantizar que dichas personas puedan ejercitar los mismos derechos y obligaciones que los demás ciudadanos, objetivo incluido en el Libro Blanco «Política Social Europea-Un paso adelante para la Unión», adoptado por la Comisión Europea el 27 de julio de 1994.

La Carta Comunitaria de los derechos sociales fundamentales de los trabajadores, adoptada en el Consejo Europeo de Estrasburgo el 9 de diciembre de 1989, establece que toda persona con algún tipo de minusvalía, con independencia de su origen y naturaleza, debe poder beneficiarse de medidas adicionales encaminadas a favorecer su integración profesional y social, debiendo dichas medidas referirse, según la capacidad de los interesados, a la formación profesional, la ergonomía, la accesibilidad, la movilidad, los medios de transporte y la vivienda.

La Resolución de 20 de diciembre de 1996, del Consejo y de los representantes de los Gobiernos de los Estados miembros de la Unión Europea, sobre la igual-

ten pertsonek aukera berdinak izateari buruzkoak, herritar guztiek aukera berdinak izateko printzipioa kide diren estatu guztien balio ukaezin komuna dela jotzen du, eta, ondorioz, aipatutako pertsonen aurka egindako bereizkeria negatiboari utzi eta horien bizikalitatea hobetu behar da, kide diren estatuei ahalbideratuz, helburu hori lortzerakoan, kasuan kasuko arauak eman ditzaten gizartearen baliabideek ahalbideratzen duten zabaltasunaz.

Adierazitakoari atxikiz, beharrezko da arautegi berria onartzea, aipatutako printzipioak gordez eta «etxegintza-oztopoak kentzea» kontzeptu klasikoa gaindituz eredu berri baten alde egingo duena, pertsonak ingurune sozial eta komunitarioan osoki eta libre garatzen direla bermatzea izanik helburua. Horretarako, gure Elkarteko pertsona guztiak ingurune fisikora eta komunikaziora iristen direla bermatu behar da, batez ere, mugaren bat duten pertsonak.

Ildo honetatik, lege hau beharrezko erreferentzia esparru gisa eratu da, botere publikoen iharduna bideratu eta koordinatzen duena, bere jarduera-esparruan sartuta dauden pertsonei dagokienez, nazioarteko antolamenduan jasotako aukera-berdintasunaren oinarrizko printzipioak, bai eta Konstituzioaren 14. atalean eta Autonomi Estatutuaren 9. atalean jasotzen den berdintasunaren printzipioa ere, gizartean desberdintasunegoeran dauden gizataldeentzat ekintza positiboko neurriak hartuz, bermatzera bideratuta, lurraldearen antolamendu, hirigintza, etxebizitza edo garraioa bezalako arloetan estatutuen bidez Euskal Autonomi Elkarteari emandako berariazko aginpidetza garatu eta burutuz.

Testuaren arau-maila ere ezinbesteko elementua da, zigorbidezko erregimeneko arauak eransten baititu, eta horiek legea egoki ezarri eta bete egiten dela kontrolatzeko oinarrizko zutabe dira.

Aipatutako helburua lortzekotan, honelaxe egituratzen da legea: atariko idazpurua, legearen xedea eta aplikazio-esparrua jasotzen dituena, eta bost idazpuru, irisgarritasuna bermatzeko neurri orokorrak, kontrolerako neurriak, zigorbidezko erregimena eta Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua arautzen dituztenak.

## ATARIKO IDAZPURUA
## LEGEAREN XEDEA ETA APLIKAZIO ESPARRUA

*1. atala.*– Xedea.

1.– Hona hemen lege honen xedea: hiri-ingurunearen, gune publikoen, eraikinen, garraiobideen eta komunikabideen irisgarritasuna bermatzea, pertsona guztiek eta, batez ere, mugikortasun murriztua, zailtasunak komunikazioan edo muga psikiko zein sentsoriala, aldi baterako zein betirako, dituztenek era autonomoan erabil eta goza ditzaten.

dad de oportunidades de las personas con minusvalías, considera que el principio de igualdad de oportunidades de toda la ciudadanía representa un valor inalienable común a todos los Estados miembros lo que implica la eliminación de la discriminación negativa ejercida contra dichas personas y la mejora de su calidad de vida, posibilitando a los Estados miembros que en la consecución del mencionado objetivo promulguen sus correspondientes normativas con toda la amplitud que los recursos de la sociedad permitan.

En coherencia con lo expresado, es necesario proceder a la aprobación de una nueva normativa que, respetando los mencionados principios y superando el clásico concepto de «eliminación de barreras arquitectónicas», apueste por un nuevo modelo cuya finalidad sea garantizar el pleno y libre desarrollo de las personas en el medio social y comunitario y, para ello, garantice la accesibilidad al medio físico y a la comunicación a todas las personas de nuestra Comunidad y de una manera especial a aquellas que por razones diversas presenten algún tipo de limitación.

En este sentido, esta ley se configura como el marco de referencia necesario que encauza y coordina la acción de los poderes públicos encaminada a garantizar, a través de la adopción de medidas de acción positiva para los colectivos en situación de desigualdad social, respecto de las personas incluidas en su ámbito de actuación, los principios básicos de igualdad de oportunidades recogidos en el ordenamiento internacional, así como el principio de igualdad plasmado en el artículo 14 del texto constitucional y recogido igualmente en el artículo 9 del Estatuto de Autonomía, en el desarrollo y ejecución de las competencias exclusivas atribuidas estatutariamente a la Comunidad Autónoma del País Vasco en materias tales como la ordenación del territorio, el urbanismo, la vivienda o el transporte.

Igualmente, el rango normativo del texto constituye un elemento imprescindible, por cuanto incorpora las normas reguladoras del régimen sancionador, que conforman un pilar fundamental para el control de la correcta aplicación y observancia de la ley.

Para conseguir la finalidad enunciada, la ley se estructura en un Título Preliminar en el que se recogen el objeto y ámbito de aplicación de la ley, y cinco Títulos que regulan las medidas generales para garantizar la accesibilidad, las medidas de fomento, las medidas de control, el régimen sancionador y el Consejo Vasco para la Promoción de la Accesibilidad.

## TÍTULO PRELIMINAR
## OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN DE LA LEY

*Artículo 1.*– Objeto.

1.– La presente ley tiene por objeto garantizar la accesibilidad del entorno urbano, de los espacios públicos, de los edificios, de los medios de transporte y de los sistemas de comunicación para su uso y disfrute de forma autónoma por todas las personas y en particular por aquellas con movilidad reducida, dificultades de comunicación o cualquier otra limitación psíquica o sensorial, de carácter temporal o permanente.

2.– Botere publikoek legea eraginkortasunez bete dadin beharrezkoak diren ekintza positiboko neurriak hartzea sustatuko dute, bai eta laguntza teknikoak erabiltzea ere, pertsonen bizi-kalitatea hobetzen lagunduko dutenak.

*2. atala.–* Legearen aplikazio-esparrua.

Lege hau Euskal Autonomi Elkartearen esparruan ezarriko da, nortasun fisikoa edo juridikoa duen edozein sujetu publiko zein pribatuk egiten dituen jardueretan, hirigintza, eraikuntza, garraio eta komunikazio arloetan.

I. IDAZPURUA
IRISGARRITASUNA BERMATZEKO NEURRIAK

I. ATALBURUA

IRISGARRITASUNARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

*3. atala.–* Hirialdeen eta leku publikoen irisgarritasunari buruzko xedapen orokorrak.

1.– a) Erabilera publikoko guneek, eta batez ere bide publikoek, parkeek eta plazek, bai eta horiei dagozkien elkarte-hornidurek ere, zerbitzu publikoen instalazioek eta hiriko altzariek, bermatu egingo dute euren irisgarritasuna lege honek eta berau garatzeko arauek ezartzen dutenaren arabera.

b) Botere publikoek sustatu egingo dute lehendik daudenak lege honen aginduetara pixkanaka-pixkanaka egoki daitezen.

c) Bide emango zaio Euskal Autonomi Elkarteko ondare historiko-artistikoa lege honek ezarritako irisgarritasun-irizpideetara arian-arian egokitzeari.

2.– Hirigintza-planeamendurako egiterapideek, batez ere azterlan zehatzek, eta urbanizatzeko eta lanak burutzeko proiektuek behar bezala bermatuko dute beren esparruan sartuta dauden urbanizazio-elementuek eta hiriko altzariek duten irisgarritasuna, eta ez dira ez onartu ez emango kasuan kasuko lizentziak, lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezartzen diren oinarrizko betekizunak eta irizpideak betetzen ez badira.

*4.– atala.–* Eraikuntzaren irisgarritasunari buruzko xedapen orokorrak.

1.– Oin berriko eraikinak eraikitzeko lanak, lur azpikoak barne, familia bakarreko etxebizitzei dagozkienak izan ezik, lege honetan eta berau garatzeko arauetan ezartzen denaren arabera gauzatuko dira irisgarritasuna bermatzeko moduan.

2.– Egoitza gisa erabiltzeko diren oin berriko eraikinek bermatu egingo dute euren irisgarritasuna, honako irizpide hauen arabera:

a) Eraikinak bide publikoarekin, elkarte-erabilpena duten atxikitako zerbitzu edo eraikinekin, garajeekin eta inguruko eraikinekin dituen sarbideak eta komuni-

2.– Los poderes públicos promoverán la adopción de las medidas de acción positiva necesarias para la efectiva aplicación de la ley, así como en su caso la utilización de las ayudas técnicas que contribuyan a mejorar la calidad de vida de las personas.

*Artículo 2.–* Ámbito de aplicación de la ley.

La presente ley será de aplicación, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a todas las actuaciones en materia de urbanismo, edificación, transporte y comunicación realizadas por cualquier sujeto con personalidad física o jurídica, pública o privada.

TÍTULO I
MEDIDAS PARA GARANTIZAR LA ACCESIBILIDAD

CAPÍTULO I

DISPOSICIONES GENERALES SOBRE ACCESIBILIDAD

*Artículo 3.–* Disposiciones generales sobre accesibilidad del entorno urbano y de los espacios públicos.

1.– a) Los espacios de uso público, en particular las vías públicas, los parques y plazas, así como los respectivos equipamientos comunitarios, las instalaciones de servicios públicos y el mobiliario urbano, garantizarán su accesibilidad en los términos que establece esta ley y sus normas de desarrollo.

b) Los poderes públicos promoverán la adaptación gradual de los ya existentes a las prescripciones de la presente ley.

c) Se contemplará la paulatina adaptación del patrimonio histórico-artístico de la Comunidad Autónoma del País Vasco a los criterios de accesibilidad marcados por esta ley.

2.– Los instrumentos de planeamiento urbanístico, en particular los estudios de detalle, y los proyectos de urbanización y de ejecución de obras garantizarán debidamente la accesibilidad de los elementos de urbanización y del mobiliario urbano incluidos en su ámbito, y no serán aprobados ni otorgadas las correspondientes licencias si no se observan las determinaciones y criterios básicos establecidos en la presente ley y en sus normas de desarrollo.

*Artículo 4.–* Disposiciones generales sobre accesibilidad de la edificación.

1.– Las obras de construcción de edificaciones de nueva planta, incluidas las subterráneas, con excepción de las relativas a viviendas unifamiliares, se ejecutarán de forma que garanticen su accesibilidad en los términos establecidos en la presente ley y en sus normas de desarrollo.

2.– Los edificios de nueva planta destinados a uso residencial garantizarán su accesibilidad conforme a los siguientes criterios:

a) Los accesos y comunicaciones del edificio con la vía pública, con los servicios o edificaciones anexas de uso comunitario, con los garajes y con los edificios veci-

kabideak edozein pertsonak era autonomoan erabiltzeko modukoak izango dira.

b) Etxebizitzek elementu komunekin, garajeekin, trastelekuekin eta atxikitako eranskinekin dituzten komunikabideak edozein pertsonak era autonomoan erabiltzeko modukoak izango dira.

3.– 1.– Ostalaritzan erabiltzeko diren oin berriko eraikin edo instalazioek honako irizpide hauen arabera bermatuko dute irisgarritasuna:

a) Eraikinak bide publikoarekin, elkarte-erabilpena duten atxikitako zerbitzu edo eraikinekin eta aparkalekuekin dituen sarbideak edozein pertsonak era autonomoan erabiltzeko modukoak izango dira.

b) Egonlekuek elementu komunekin dituzten komunikabideak, bai eta gordetako egonlekuen sarbidea eta erabilpena ere, edozein pertsonak era autonomoan erabiltzeko modukoak izango dira.

2.– Etxe partikularretarako edo nekazalturismoko egonlekuetarako eraikinak eraldatu, handiagotu edo aldatzeko lanetan, gutxienez unitate bat lege honetan jasotako irisgarritasun-irizpedeetara egokitzea gomendatzen da.

4.– Lehendik dauden erabilera edo zerbitzu publikoko eraikinetako eraldaketa, handitze edo aldaketalanak, hirigintzari buruzko arautegiak ematen dien izenaren arabera, betekizun funtzional eta neurrikoak betez gauzatuko dira, irisgarritasuna bermatzeko moduan, lege honetan eta berau garatzeko arauetan finkatutakoaren arabera. Gainerako kasuetan, lan horiek, eraikinen irisgarritasunari dagozkion elementuei eragiten dietenean, era berean betekizun funtzional eta neurrikoei egokituz gauzatu beharko dira, irisgarritasuna bermatzeko moduan aipatutakoaren arabera.

*5. atala.*– Garraioko irisgarritasunari buruzko xedapen orokorrak.

1.– EAEko herri-administrazioen aginpidetzakoak diren bidaiarien garraio publikoek bermatu egingo dute euren irisgarritasuna lege honetan eta berau garatzen duten arauetan ohartemandakoaren arabera.

2.– Bidaiarien garraio publikorako den material erosi berria araudiz ezarritako baldintza teknikoei egokitu beharko zaie. Baldintza horiek lege honen helburuekin bateragarri izan beharko dute.

3.– Bidaiarien garraio publikorako diren eraikin edo instalazioek informazio eta komunikazio akustiko, ikustezko eta sentsorialerako sistema egokiak izango dituzte, edozein pertsonak era autonomoan eta behar bezalako segurtasun-baldintzetan erabiltzeko modukoak.

4.– Garraio arloan aginpidedunak diren herri-administrazioek bidezko diren neurriak hartuko dituzte garraio publikoak, bai eta horiekin lotutako eraikin, zerbitzu, instalazio eta altzariak ere, lege honetako eta berau garatzen duten arauetako aginduei pixkanaka-pixkanaka egoki dakizkien.

nos deberán permitir su utilización de forma autónoma por todas las personas.

b) Las comunicaciones de las viviendas con los elementos comunes, con los garajes, con los trasteros y dependencias anejas deberán permitir su utilización de forma autónoma por todas las personas.

3.– 1.– Los edificios e instalaciones de nueva planta destinados al uso hostelero garantizarán su accesibilidad conforme a los siguientes criterios:

a) Los accesos del edificio con la vía pública, con los servicios o edificaciones anexas de uso comunitario y con los aparcamientos deberán permitir su utilización de forma autónoma por todas las personas.

b) Las comunicaciones de los alojamientos con los elementos comunes, así como el acceso y uso de los alojamientos reservados, deberán permitir igualmente su utilización de forma autónoma por todas las personas.

2.– En obras de reforma, ampliación o modificación de edificios destinados a alojamiento en casas particulares o agroturismo se recomienda la adaptación, al menos de una unidad, a los criterios de accesibilidad recogidos en esta ley.

4.– Las obras de reforma, ampliación o modificación, conforme a la acepción conferida por la normativa urbanística, de los edificios y locales de uso o servicio público existentes se ejecutarán ajustándose a los requerimientos funcionales y de dimensión que garanticen su accesibilidad en los términos establecidos en la presente ley y en sus normas de desarrollo. En los demás casos, las citadas obras se ejecutarán, cuando afecten a elementos relativos a la accesibilidad de los edificios, ajustándose igualmente a los requerimientos funcionales y de dimensión que garanticen su accesibilidad en los mencionados términos.

*Artículo 5.*– Disposiciones generales sobre accesibilidad en el transporte.

1.– Los transportes públicos de viajeros competencia de las Administraciones públicas vascas garantizarán su accesibilidad en los términos previstos en la presente ley y en sus normas de desarrollo.

2.– El material de nueva adquisición destinado al transporte público de viajeros deberá ajustarse a las condiciones técnicas dictadas reglamentariamente, compatibles con los objetivos de la presente ley.

3.– Los edificios e instalaciones destinadas al transporte público de viajeros dispondrán de sistemas adecuados de información y comunicación acústica, visual y sensorial que garanticen su utilización autónoma y en las debidas condiciones de seguridad por todas las personas.

4.– Las Administraciones públicas competentes en materia de transporte adoptarán las medidas oportunas para la progresiva adaptación de los transportes públicos, así como de los edificios, servicios, instalaciones y mobiliario vinculado a los mismos, a las prescripciones de la presente ley y de sus normas de desarrollo.

5.– Garraio arloan aginpidedunak diren euskal herri-administrazioek bidezko diren neurriak hartuko dituzte atal honetan garraio publikoentzat jasotzen diren erregimen eta betebeharrak pixkanaka-pixkanaka garraio pribatuei aplika dakizkien.

*6. atala.–* Komunikazio-sistemetako irisgarritasunari buruzko xedapen orokorrak.

1.– Komunikaziorako sistemak herritar guztiei izango zaizkie irisgarri, lege honetan eta berau garatzen duten arauetan ohartemandakoaren arabera.

2.– Komunikaziorako sistemetan egokienak diren baliabide teknikoak ezartzen direla bermatuko dute herri-administrazioek, herritar guztiei eta, batez ere, komunikazioan zailtasunak dituztenei, komunikaziorako duten eskubidea bermatzeko.

3.– Herri-administrazioek sustatu egingo dute keinuen lengoaiako interpretariak eta gor-itsuen gidari interpretariak heztea, komunikazioan zailtasunak dituzten pertsonekin komunikazio zuzena errazteko, eta funtzio publikora pixkanaka-pixkanaka sar daitezen ere bultzatuko dute.

4.– Titulartasun publikoa duten komunikabideek neurri teknikoen plan bat egingo dute, pixkana-pixkana herritar guztiek komunikaziorako duten eskubidea behar bezala bermatu ahal izango duena.

II. ATALBURUA

ERRESERBAK

*7. atala.–* Erreserbak hirialdean, gune publikoetan eta erabilera publikoko eraikinetan.

1.– Erabilera publikoko gune eta eraikinak:

a) Mugikortasun murriztua duten pertsonek lehentasunez erabiltzeko guneak izan beharko dituzte honako hauek: auditorio, kontzertu-areto, ikuskizun-areto, kiroldegi, gela eta jendea biltzen den antzeko guneek.

b) Araudiz finkatuko dira gordetako gune eta aldeek gutxienez izan behar duten proportzioa.

2.– Aparkalekuak:

a) Zabalguneetan eta erabilera publikoko garaje eta aparkalekuetarako diren eraikinetan, mugikortasun murriztua duten pertsonen ibilgailuentzako soilik izango diren plazak gordeko dira oinezkoentzako sarbideetatik hurbil.

b) Gorde beharreko plazen kopurua hauxe izango da: plaza bat 40 edo frakzio bakoitzeko.

3.– Komunak, aldagelak eta dutxak:

Gune publikoetan eta erabilera publikoko eta/edo jendeari zabaldutako eraikinetan kokatuta dauden komun, aldagela, dutxa eta antzeko elementuetan elementu bat gordeko da hamar edo frakzio bakoitzeko, sexu bakoitzerako, mugikortasun murriztua duten

5.– Las Administraciones públicas vascas competentes en materia de transportes adoptarán las medidas oportunas para que el régimen y obligaciones contenidas en este artículo para los medios de transporte públicos se apliquen progresivamente a los transportes privados.

*Artículo 6.–* Disposiciones generales sobre accesibilidad en los sistemas de comunicación.

1.– Los sistemas de comunicación serán accesibles a toda la ciudadanía en los términos previstos en la presente ley y en sus normas de desarrollo.

2.– Las Administraciones públicas velarán por la incorporación de los medios técnicos más apropiados en los sistemas de comunicación al objeto de garantizar el derecho a la comunicación a toda la ciudadanía y en particular a las personas con dificultades de comunicación.

3.– Las Administraciones públicas impulsarán la formación de profesionales intérpretes en lenguaje de signos y guías intérpretes de sordo-ciegos, a fin de facilitar la comunicación directa con las personas con dificultades de comunicación, y fomentará su progresiva incorporación en la función pública.

4.– Los medios de comunicación de titularidad pública elaborarán un plan de medidas técnicas que, de forma gradual, permita garantizar debidamente el derecho a la comunicación a toda la ciudadanía.

CAPÍTULO II

RESERVAS

*Artículo 7.–* Reservas en el entorno urbano, espacios públicos y edificaciones de uso público.

1.– Espacios y edificios de uso público:

a) En auditorios, salas de conciertos, salas de espectáculos, estadios deportivos, aulas y en otros espacios de concurrencia pública de análoga naturaleza se dispondrán espacios reservados de uso prioritario para personas con movilidad reducida.

b) La proporción mínima de espacios y zonas reservadas se determinará reglamentariamente.

2.– Aparcamientos:

a) En las zonas y espacios abiertos así como en los edificios destinados a garajes y aparcamientos de uso público se reservarán en la proximidad de los accesos peatonales plazas destinadas al uso exclusivo de vehículos de personas con movilidad reducida.

b) El número de plazas reservadas será de 1 por cada 40 o fracción.

3.– Servicios higiénicos, vestuarios y duchas:

En los aseos, vestuarios, duchas y otros elementos de análoga naturaleza ubicados en los espacios públicos y edificios de uso público y/o abiertos al público se reservará un elemento por sexo por cada diez o fracción, debidamente adaptados para el uso de personas con

pertsonek erabiltzeko behar bezala egokituak. Eraikinetan elementuen pilatzearen arabera ezarriko da aipatutako proportzioa.

4.– Telefonoak:

a) Jendeak erabiltzeko diren telefono, mintzategi eta kabinetan eta/edo gune eta eraikin publikoetan jendeak erabiltzeko kokatuta daudenetan aparatu bat gordeko da hamar edo frakzio bakoitzeko, mugikortasun murriztua edo komunikaziorako zailtasunak dituzten pertsonek erabiltzeko behar bezala egokituta. Eraikinetan elementuen pilatzearen arabera ezarriko da aipatutako proportzioa.

b) Erabilera publikoko mintzategietan testu-telefono bat ezarriko da gutxienez.

*8. atala.*– Erreserbak turismo-egonleku eta beste establezimendu batzuetan.

1.– Turismo-egonlekuetan kasuan kasuko erreserbak egingo dira mugikortasun murriztua edo komunikaziorako zailtasunak dituzten pertsonentzako, atal honetan xedatutakoaren arabera. Erreserba-gai diren egonleku-plazek behar bezalako irisgarritasun-baldintzak bete beharko dituzte, lege honetan eta berau garatzen duten arauetan ohartemandakoaren arabera.

2.– Sailkapen eta maila guztietako hotel eta ostatuetan egonleku bat gordeko da berrogeita hamar edo frakzio bakoitzeko, mugikortasun murriztua duten pertsonek lehentasunez erabil dezaten.

3.– Hotelak ez diren turismo-egonlekuetan honako erreserba hauek egingo dira, mugikortasun murriztua duten pertsonek lehentasunez erabil ditzaten:

a) Sailkapen eta maila guztietako turismo-kanpamendu edo kanpinetan plaza bat gordeko da berrogeita hamar edo frakzio bakoitzeko.

b) Maila guztietako turismo-apartamentuetan eta oporretarako turismo-etxebizitzetan plaza bat gordeko da berrogeita hamar edo frakzio bakoitzeko.

4.– Gazteentzako kanpamendu, aterpe, eskolako oporretarako egonleku eta antzekoetan plaza bat gordeko da berrogeita hamar edo frakzio bakoitzeko, mugikortasun murriztua duten pertsonek lehentasunez erabil dezaten.

5.– Turismo-egonlekuetan, hamar plaza edo frakzio bakoitzeko, beharrezkoak diren laguntza teknikoak egongo dira batean, komunikaziorako zailtasunak dituzten pertsonek egonleku bat era autonomoan erabil dezaten.

6.– Turismo-egonlekuetan aparkalekurik egonez gero, plaza bat gordeko da erreserba-gai den egonleku bakoitzeko.

*9. atala.*– Erreserbak etxebizitzetarako diren eraikinetan.

1.– Etxebizitzetarako diren eraikinetan ondoan aipatzen diren erreserbak egingo dira betirako mugikortasun murriztua duten pertsonentzako. Pertsona bat erreserba-eskubide horretaz baliatzeko, minusbaliotasun kalifikatu eta baloratua egiaztatu beharko du, erreserbaren onuren arabera zein murriztapen eta zein mai-

movilidad reducida. En los edificios, la proporción indicada se aplicará por acumulación de elementos.

4.– Teléfonos:

a) En los teléfonos, locutorios y cabinas abiertas al público y/o abiertos al público ubicados en los espacios y edificios públicos se reservará un aparato por cada diez o fracción, debidamente adaptado para el uso de personas con movilidad reducida o dificultades de comunicación. En los edificios, la proporción indicada se aplicará por acumulación de elementos.

b) En los locutorios de uso público se instalará, al menos, un teléfono de texto.

*Artículo 8.*– Reservas en los alojamientos turísticos y otros establecimientos.

1.– En los alojamientos turísticos se efectuarán las reservas oportunas para las personas con movilidad reducida y dificultades de comunicación conforme a lo dispuesto en el presente artículo. Las plazas de alojamiento objeto de reserva deberán reunir las debidas condiciones de accesibilidad conforme a lo previsto en la presente ley y en sus normas de desarrollo.

2.– En los hoteles y pensiones en todas sus clasificaciones y categorías se reservará un alojamiento por cada cincuenta o fracción para el uso prioritario de personas con movilidad reducida.

3.– En los alojamientos turísticos extrahoteleros se efectuarán las siguientes reservas para el uso prioritario de personas con movilidad reducida:

a) En los campamentos de turismo o campings, en todas sus clasificaciones y categorías, una plaza por cada cincuenta o fracción.

b) En los apartamentos turísticos en todas sus categorías y en las viviendas turísticas vacacionales, una plaza por cada cincuenta o fracción.

4.– En los campamentos juveniles, albergues, colonias de vacaciones escolares y otros de análoga naturaleza se reservará una plaza por cada cincuenta o fracción para el uso prioritario de personas con movilidad reducida.

5.– En los alojamientos turísticos se dispondrá, en una por cada diez plazas o fracción, de las ayudas técnicas necesarias para que personas con dificultades en la comunicación ocupen un alojamiento de forma autónoma.

6.– Cuando en los alojamientos turísticos exista servicio de aparcamiento, se reservará una plaza por cada alojamiento objeto de reserva.

*Artículo 9.*– Reservas en los edificios destinados a viviendas

1.– En los edificios destinados a viviendas se efectuarán las siguientes reservas para personas con movilidad reducida de carácter permanente, siendo beneficiarios del derecho de reserva las personas que acrediten minusvalía calificada y valorada, en la que se determine el tipo y grado de disminución en relación con los

latarainokoa duen zehaztuta, indarreango minusbaliotasunak baloratzeko erregimen orokorra betez.

a) Babes ofizialeko etxebizitzen sustaketetan etxebizitza bat gordeko da hogeita bost edo frakzio bakoitzeko. Onuradun izateko, indarreango arauetan horrelako etxebizitzak eskuratzeko ohartemandako betekizunak bete beharko dira betiere.

b) Etxebizitza libreen sustaketetan, berrogeita hamar etxebizitza baino gehiago badira, etxebizitza bat gordeko da berrogeita hamar edo frakzio bakoitzeko.

c) Horrelako pertsonek lehentasunez erosi edo alokatu ahal izango dituzte gordetako etxebizitzak. Horien ondoren, irabazizko xederik ez duten erakunde publiko edo pribatuek, talde hauetarako etxebizitza gisa erabiltzeko. Bestela, gordetako etxebizitzaren izaera galdu egingo dute.

2.– Araudiz finkatuko da erreserba-eskubideaz baliatzea arautzeko prozedura.

3.– Etxebizitzen sustatzaileek egokitu egin beharko dituzte gordetako etxebizitzak esleipendunaren ezaugarrietara. Araudiz finkatuko dira egin beharreko gutxienezko egokitzapenak zehazteko irizpide teknikoak.

*10. atala.–* Erreserbak garraioan.

1.– Hiri eta hiriarteko garraiobide publiko kolektiboek, eta batez ere autobus, trenbide eta funikularrek, mugikortasun murriztua duten pertsonek lehentasunez erabil ditzaten, gutxienez gurpil-aulkietarako bi leku eta lau eserleku gorde beharko dituzte kotxe bakoitzeko, sartzeko ateetatik hurbil, behar bezala seinalizatuta eta txirrinak eta gelditzeko eskatzeko seinaleak eskuragarri daudela.

2.– Aipatutako garraiobideak irisgarriak izango zaizkie mugikortasun murriztua duten pertsonei; era berean, barrualdean lekuz aldatzeko behar bezalako segurtasun-baldintzak dituztela bermatu beharko dute, eta gorde egin beharko dute eragindako pertsonek eraman ditzaketen tresnak edo laguntza teknikoak eta/edo itsu-txakurra kokatzeko beharrezko den tokia.

3.– Mugikortasun murriztua duten pertsonek lekuz aldatzeko beharrizanak bete ditzaten, ibilgailu edo taxi egokitua egotea sustatuko dute hiru mila bizilagun baino gehiago duten herrietako udalek. Hala behar izanez gero, lizentzia berria eman daiteke horretarako.

*11. atala.–* Erreserbak komunikazio-sistemetan.

Komunikaziorako zailtasunak dituzten pertsonek komunikazio-sistemetara irisgarritasuna dutela bermatzeko honako erreserba hauek ezarriko dira:

1.– Jendearentzako argibideak emateko eta/edo jendea hartzeko guneak kokatuta dauden tokietan, gutxienez bat horrelako pertsonek erabiltzeko moduan egongo da egokituta.

2.– Euskal Autonomi Elkartearen titulartasuneko ikus-entzutezko bideetan, gutxienez informatiboetako batean keinuen lengoaiako interpretari bat agertuko da azpitituluez gain, komunikaziorako zailtasunak dituz-

beneficios de la reserva, todo ello conforme al régimen general de valoración de minusvalías vigente:

a) En las promociones de viviendas de protección oficial se reservará una vivienda por cada veinticinco o fracción. Para el acceso a dichas viviendas, los beneficiarios deberán cumplir en todo caso los requisitos previstos en la normativa vigente.

b) En las promociones de vivienda libre se reservará, a partir de cincuenta viviendas, una vivienda por cada cincuenta o fracción.

c) Las viviendas reservadas podrán ser adquiridas o alquiladas preferentemente por dichas personas, y en segundo lugar por entidades públicas o privadas sin ánimo de lucro para su uso como viviendas destinadas a dicho colectivo. En caso contrario perderán su condición de vivienda reservada.

2.– El procedimiento para regular el ejercicio del derecho de reserva se determinará reglamentariamente.

3.– Los promotores de viviendas deberán adaptar las viviendas reservadas a las características del adjudicatario. Los criterios técnicos para determinar las adaptaciones mínimas que deban realizarse se fijarán reglamentariamente.

*Artículo 10.–* Reservas en el transporte.

1.– Los medios de transporte público colectivos urbanos e interurbanos, en particular los autobuses, trenes y funiculares, reservarán para el uso prioritario de personas con movilidad reducida al menos dos espacios para sillas de ruedas y cuatro asientos por coche, próximos a las puertas de acceso, adecuadamente señalizados y accesibles a los timbres y señales de parada.

2.– Los citados medios de transporte serán accesibles para personas con movilidad reducida, deberán garantizar el desplazamiento interior en las debidas condiciones de seguridad y reservar el espacio físico necesario para la ubicación de utensilios o ayudas técnicas y/o perro-guía con que vayan provistas las personas afectadas.

3.– En poblaciones superiores a tres mil habitantes los Ayuntamientos promoverán la existencia de un vehículo o taxi acondicionado que cubra las necesidades de desplazamiento de personas con movilidad reducida, siendo posible el otorgamiento de una nueva licencia si fuera necesario.

*Artículo 11.–* Reservas en los sistemas de comunicación.

Para garantizar la accesibilidad a los sistemas de comunicación de las personas con dificultades de comunicación se establecerán las siguientes reservas:

1.– En los lugares donde se ubiquen los puntos de información y/o atención al público, al menos uno de ellos deberá estar acondicionado para su utilización por dichas personas.

2.– En los medios audiovisuales de titularidad de la Comunidad Autónoma del País Vasco aparecerá al menos en uno de los informativos un intérprete en lenguaje de signos además de subtítulos, al objeto de

ten pertsonek informaziorako duten eskubidea bermatzeko.

3.– Itsu-txakurra daramaten ikusmen urrikoek sarrera librea izango dute turismo-egonleku, ostalaritzaleku eta garraio publikoetara eta orohar erabilera edo zerbitzu publikoko gune eta eraikin guztietara.

*12. atala*.– Erreserbetan irisgarritasuna adierazteko betebeharra.

Derrigorrez ezarri beharko da irisgarritasunaren nazioarteko ikurra erabilera publikoko gune, eraikin publiko, turismo-egonleku, garraio-instalazio, garraiobide eta informazio-sistemetan, erreserbak badituzte lege honetan ohartemandakoaren arabera.

II. IDAZPURUA
SUSTATZEKO NEURRIAK

*13. atala*.– Irisgarritasunaren sustaketa.

1.– Lehendik dauden titulartasun, erabilera edo zerbitzu publikoko hirialde, espazio publiko, eraikin, garraio eta informazio eta komunikazio-sistemetara irisgarritasuna bermatu eta sustatzeko, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, udalek eta gainerako herri-erakundeek lau urteko egitarauak egingo dituzte irisgarritasuna sustatzeko. Horien xedea aipatutako elementuak lege honetan eta berau garatzen duten arauetan ohartemandako irisgarritasun-baldintzei pixkanaka-pixkanaka egokitzea izango da. Lehendabiziko lau urteko egitarauak eginda egon beharko du lege hau EHAAn argitaratzen denetik hasi eta bi urteko epean.

2.– Irisgarritasuna sustatzeko egitarauek honako agiri hauek jasoko dituzte:

a) Egokitzapen-gai diren kanpoko gune, eraikin, garraio eta komunikazioen inben-tarioa jasotzen duen katalogoa.

b) Jardueren hurrenkera, lehentasunen arabera, kontutan hartuko dituena eraginkortasun handiagoa eta biltzen duten jendetza.

c) Egitarau ekonomiko-finantzieroa, egokitzapenak egiteko bideratuko diren aurreikuspen ekonomikoak zehaztuta.

d) Egokitzapenak burutzeko egutegia.

3.– Euskal Autonomi Elkarteko herri-administrazioek irisgarritasuna sustatzeko egitarauak finantzatzeko partida zehatzak izendatuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan, euren aurrekontu diru-eskuartearen arabera.

*14. atala*.– Finantza-neurriak.

1.– Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta udalek, kasuan kasuko eskumenak garatu eta burutzean, irisgarritasuna sustatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzea sustatuko dute.

garantizar el derecho a la información de las personas con dificultades de comunicación.

3.– Los deficientes visuales acompañados de perros-guía tendrán libre acceso a alojamientos turísticos, establecimientos hosteleros y transportes públicos y en general a todos los espacios y edificaciones de uso o servicio público.

*Artículo 12*.– Obligación de anunciar la accesibilidad en las reservas.

El símbolo internacional de accesibilidad será de obligada instalación en los espacios de uso público, en los edificios públicos, en los alojamientos turísticos, en las instalaciones y medios de transporte y en los sistemas de información en los que existan reservas conforme a lo previsto en la presente ley.

TÍTULO II
MEDIDAS DE PROMOCIÓN Y FOMENTO

*Artículo 13*.– Promoción de la accesibilidad.

1.– Para garantizar y promover la accesibilidad de los entornos urbanos, espacios públicos, edificios, transportes y sistemas de información y comunicación ya existentes, de titularidad, uso o servicio público, el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales, las Ayuntamientos y demás entidades públicas elaborarán programas cuadrienales para la promoción de la accesibilidad. Su objeto será la adaptación progresiva de los elementos mencionados a las condiciones de accesibilidad previstas en esta ley y en sus normas de desarrollo. El primer programa cuadrienal deberá estar elaborado en el plazo de dos años a partir de la publicación de esta ley en el BOPV.

2.– Los programas para la promoción de la accesibilidad constarán de los siguientes documentos:

a) Catálogo con el inventario de los espacios exteriores, edificación, transporte y comunicación objeto de adaptación.

b) Orden de prioridades de las actuaciones, que tendrá en cuenta la mayor eficiencia y afluencia de personas.

c) Programa económico-financiero, determinando las previsiones económicas destinadas a la realización de las adaptaciones.

d) Calendario de ejecución de las adaptaciones.

3.– Las Administraciones públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco consignarán en sus presupuestos respectivos las partidas específicas destinadas a la financiación de los programas de promoción de la accesibilidad, dentro de sus disponibilidades presupuestarias.

*Artículo 14*.– Medidas financieras.

1.– El Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos impulsarán, en el desarrollo y ejecución de sus competencias respectivas, la adopción de las medidas de fomento necesarias para la promoción de la accesibilidad.

2.– Arlo honentzako berariazko dirulaguntza-egitarauetan honako jarduera hauek jo ahal izango dituzte lehentasunezkotzat herri-administrazioek:

a) Lehendik dauden hirialdeak eta gune publikoak, eraikuntza, garraioa eta komunikazio-sistemak irisgarritasun-baldintzei egokitzea xede duten lanak.

b) Oin berriko, eraldaketako edo bereoneratzeko lanak, nahitaezko izan ez arren, horietan mugikortasun murriztua duten pertsonentzat gordetako etxebizitzak sartzen badira.

c) Eraldaketarako lanak, mugikortasun murriztua edo irisgarritasunean zailtasunak dituzten pertsonentzat etxebizitza, elkarte-zerbitzu edo hauetarako sarbideen egokitzapen funtzionalak egitea xede badute.

d) Ibilgailu pribatu eta taxiak edo erabilera publikoko ibilgailu pribatuak erosi eta irisgarritasun-baldintzei egokitzea.

e) Turismo-egonlekuetako oin berriko, eraldaketako eta bereoneratzeko lanak, nahitaezko izan ez arren, mugikortasun murriztua eta komunikaziorako zailtasunak edo orohar irisgarritasunean zailtasunak dituzten pertsonek lehentasunez erabil ditzaten gordetako egonlekuak sartzen badira.

f) Laguntza teknikoak eskuratzea, hirialdea, gune publikoak, eraikuntza, garraioa eta komunikazioa ezinezko denean irisgarritasun-baldintzei egokitzea.

g) Irisgarritasuna sustatzea xede duten beste jarduerak.

III. IDAZPURUA
KONTROLATZEKO NEURRIAK

*15. atala.–* Lizentziak eta baimenak.

1.– Lege honetako aginduak betetzea ezinbestekoa izango da hirigintza-planeamendurako egiterapideak eta horien burutzapena onesteko, bai eta Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioak, foru-aldundiek eta udalek lizentziak, baimenak, kalifikazioak eta bestelako ekintzak eman ditzaten ere.

2.– Taxia erabiltzeko lizentzia lortzeko edo ibilgailua bera aldatzeko, egiaztatu egin beharko da horrek behar bezalako irisgarritasun-baldintzak betetzen dituela.

*16. atala.–* Administrazio-kontratuak.

Administrazio-kontratuen baldintzek lege honi egokitzeko klausulak jaso behako dituzte, horien edukiek lege honetan xedatutakoari eragiten badiote.

*17. atala.–* Irisgarritasun-baldintzen kontrola.

1.– Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, udalek eta lizentziak eta baimenak emateko, bai eta planeamendurako egiterapideak eta garraio eta komunikazio arloko proiektuak onesteko ere, aginpidetza duten gainerako

2.– En los programas subvencionales específicos para esta materia, las Administraciones públicas podrán estipular como prioritarias las siguientes actuaciones:

a) Las obras que tengan por objeto la adaptación a las condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos y los espacios públicos, la edificación, el transporte y los sistemas de comunicación existentes.

b) Las obras de nueva planta, reforma o rehabilitación en las que, no siendo preceptivo, se incluyan viviendas reservadas para personas con movilidad reducida.

c) Las obras de reforma que tengan por objeto adaptaciones funcionales de las viviendas, servicios comunitarios o accesos a las mismas para personas con movilidad reducida o dificultades en la accesibilidad.

d) La adquisición y adaptación de los vehículos privados y taxis o vehículos privados de uso público a las condiciones de accesibilidad.

e) Las obras de nueva planta, reforma o rehabilitación de los alojamientos turísticos en las que, no siendo preceptivo, se incluyan alojamientos reservados para el uso prioritario de personas con movilidad reducida y dificultades de comunicación, o en general dificultades en la accesibilidad.

f) La adquisición de ayudas técnicas, cuando no sea posible adaptar a las condiciones de accesibilidad el entorno urbano, los espacios públicos, la edificación, el transporte y la comunicación.

g) Otras actuaciones que persigan la promoción de la accesibilidad.

TÍTULO III
MEDIDAS DE CONTROL

*Artículo 15.–* Licencias y autorizaciones.

1.– El cumplimiento de los preceptos de la presente ley será exigible para la aprobación de los instrumentos de planeamiento urbanístico y de su ejecución, así como para la concesión de licencias, autorizaciones, calificaciones y otros actos, por parte de la Administración de la Comunidad Autónoma, las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos.

2.– Para la obtención de licencia de taxi o cambio de vehículo se deberá justificar que éste reúne las debidas condiciones de accesibilidad.

*Artículo 16.–* Contratos administrativos.

Los pliegos de condiciones de los contratos administrativos cuyos contenidos afecten a lo dispuesto en esta ley contendrán cláusulas de adecuación a la misma.

*Artículo 17.–* Control de las condiciones de accesibilidad.

1.– El Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales, los Ayuntamientos y demás entidades públicas competentes para el otorgamiento de licencias y autorizaciones, así como para la aprobación de los instrumentos de pla-

herri-erakundeek egiaztatu egingo dute horien arauak lege honi egokitzen zaizkiola.

2.– Proiektuei dagozkien agirietan edo, hala badagokio, lizentzia, baimen edo emakida-eskabideetan, berariaz azalduko da lege honetan xedatutakoa betetzen dela.

IV. IDAZPURUA
ZIGORBIDEZKO ERREGIMENA

*18. atala.–* Lege-hausteak.

1.– Lege honetako I. idazpuruan jasotzen diren aginduak urratu edo horien aurka doazen egintza edo ez betetzeak lege-hausteak dira eta zigortu egingo dira, idazpuru honetan arautzen diren betekizun eta jardunbidearen arabera.

2.– Lege-hausteak arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke:

a) Lege-hauste arinak dira:

– Lege honetan ohartematen denaren arabera irisgarritasun-baldintzak ez betetzea, erabilera publikoko guneetan, eraikuntzan, garraioan eta informazio eta komunikazio-sistemetan.

– Lege hau ezartzearen ondorio diren irisgarritasunerako elementuak andeatu edo ez erabiltzea, erruz edo arduragabekeriagatik.

– Lege honetan ohartemandakoaren eta araudiz ezartzen diren irisgarritasun-baldintzen aurka doazen egintza edo ez betetzeak, larritzat jotzen ez direnak.

b) Lege-hauste larriak dira:

– Lege hau ezartzearen ondorio diren irisgarritasunerako elementuak andeatu edo, engainuz, ez erabiltzea.

– Kanpoko guneetako eraikuntza berriko lanetan eta handitze, eraldaketa eta hobekuntza-lanetan hirigintzako eta hiri-altzarien elementuen irisgarritasun-baldintzak ez betetzea.

– Jendea biltzea ekartzen duen erabilerarako diren eraikinetako eraikuntza berriko lanetan eta handitze, eraldaketa, bereoneratze, hobekuntza, egokitzapen eta erabilera-aldaketa lanetan irisgarritasun-baldintzak ez betetzea.

– Etxebizitzaren erabilpen kolektiborako diren eraikin berriak eraikitzeko lanetan irisgarritasun-baldintzak ez betetzea, kanpoaldea eta barrualdea era irisgarrian lotuta ez daudelako, eta barrualdea eta etxebizitza, garaje, trasteleku eta eranskinak ere ez.

– Erosi berri diren garraiobide publikoetan irisgarritasun-baldintzak ez betetzea.

– Komunikabideetan irisgarritasun baldintzak ez betetzea.

– Lege honen I. idazpuruko II. atalburuan ezarritako erreserbak ez betetzea.

neamiento y de proyectos en materia de transporte y comunicación, verificarán la adecuación de sus determinaciones a la presente ley.

2.– En la documentación de los proyectos, o en su caso en las solicitudes de licencias, autorizaciones o concesiones, se indicará de manera expresa el cumplimiento de lo dispuesto en la presente ley.

TÍTULO IV
RÉGIMEN SANCIONADOR

*Artículo 18.–* Infracciones.

1.– Las acciones u omisiones que contravengan o vulneren las prescripciones contenidas en el Título I de la presente ley constituyen infracciones y serán objeto de sanción conforme a los requisitos y procedimiento regulados en el presente Título.

2.– Las infracciones se clasifican en leves, graves y muy graves:

a) Son infracciones leves:

– La falta de mantenimiento en los espacios de uso público, en la edificación, en el transporte y en los sistemas de información y comunicación de las condiciones de accesibilidad en los términos previstos en la ley.

– El deterioro o inutilización de los elementos de accesibilidad derivados de la aplicación de la ley, por culpa o negligencia.

– Las acciones u omisiones que contravengan lo previsto en la presente ley y las condiciones de accesibilidad que reglamentariamente se determinen, no calificadas como graves.

b) Son infracciones graves:

– El deterioro o inutilización dolosa de los elementos de accesibilidad derivados de la aplicación de la ley.

– El incumplimiento de las condiciones de accesibilidad en los elementos de urbanización y del mobiliario urbano en las obras de nueva construcción, ampliación, reforma y mejora de los espacios exteriores.

– El incumplimiento de las condiciones de accesibilidad en las obras de nueva construcción, ampliación, reforma, rehabilitación, mejora, adaptación y cambio de uso de las edificaciones destinadas a un uso que implique la concurrencia de público.

– El incumplimiento de las condiciones de accesibilidad en las obras de nueva construcción de edificios destinados a uso colectivo de vivienda al no estar unidos de forma accesible el exterior con el interior y éste con las viviendas, garajes, trasteros y dependencias anejas.

– El incumplimiento de las condiciones de accesibilidad en los medios de transporte públicos de nueva adquisición.

– El incumplimiento de las condiciones de accesibilidad en la comunicación.

– El incumplimiento de las reservas establecidas en el Título I, Capítulo II, de la presente ley.

– Beste lege-hauste arin bat egitea hiru urteko epea igaro aurretik.

c) Oso lege-hauste larriak dira:

– Lege honek ezarritako betebeharrak iruzurrez edo agiriak faltsifikatuz ez betetzea.

– Lege-hauste larriak errepikatzea.

*19. atala.–* Zigorrak.

1.– Honako zigor hauek ezarri ahal izango dira lege-haustearen kalifikazioaren arabera:

a) Lege-hauste arinak: 50.000 eta 500.000 pezeta bitarteko isunak.

b) Lege-hauste larriak: 500.001 eta 10.000.000 pezeta bitarteko isunak.

c) Oso lege-hauste larriak: 10.000.001 eta 20.000.000 pezeta bitarteko isunak.

2.– Isunaren zenbatekoa neurtzeko, honako hauek hartuko dira kontutan: lege-hauslearen erantzukizun-maila, egin beharreko irisgarritasun-lanetatik sortutako kostu ekonomikoa, sortarazi den kalte zuzena edo zeharkakoa, erantzuleek errepikatzea eta lege-hausle bakoitzaren partehartze-maila.

3.– Zigorra ezartzeak ez du esan nahi lege-hausleak birjartze-betebeharrik ez duenik edo, ez betetze kasuetan, proiektuaren aldaketa edo beharrezkoak diren egokitzapen-lanak egin behar ez dituenik araudi bidez ezarriko den epean.

4.– Lege-hauste beraren ondorioz pertsona desberdinei jartzen zaizkien isunek ez dute elkarren arteko loturarik izango.

5.– Atal honetan jasotzen diren zigorren zenbatekoak gaurkotu ahal izango dira, Eusko Jaurlaritzaren dekretuz, kontsumo-prezioen indizeen aldaketaren arabera.

*20. atala.–* Zigorbidezko jardunbidea eta erregimena.

1.– Lege honetan xedatutakoa ez betetzea zigortu egingo da zigorbidezko erregimenari buruz indarrean dauden xedapen orokorren arabera, aginpidedun den organoak kasuan kasuko espedientea izapidetu ondoren.

2.– Lege honen 1. atalean aipatzen diren pertsonak edo hauek osatzen dituzten elkarteak interesatutzat joko dira betiere administrazio-jardunbideetan.

3.– Elkarte horiek errekurtsoak edo, hala badagokio, bidezko deritzen ekintzak aurkezteko ahalmena izango dute legez, bai jarduerak artxibatzeko akordioaren aurka eta bai irisgarritasun-baldintzen kontrako balizko lege-hausteak salatzea edo Administrazioari jakinaraztea espresuki edo isilbidez ezetsi duen erabakiaren aurka.

*21. atala.–* Organo aginpidedunak.

Honako hauek izango dira lege honen hausteak direla-eta zigorrak ezartzeko aginpidetza duten agintariak:

– La reincidencia en falta leve en plazo inferior a tres años.

c) Son infracciones muy graves:

– El incumplimiento fraudulento o con falsificación de documentos de las obligaciones impuestas por esta ley.

– La reincidencia en la comisión de faltas graves.

*Artículo 19.–* Sanciones.

1.– Las sanciones que podrán imponerse en función de la calificación de la infracción serán las siguientes:

a) Las infracciones leves serán sancionadas con multas de 50.000 a 500.000 pesetas.

b) Las infracciones graves serán sancionadas con multas de 500.001 a 10.000.000 de pesetas.

c) Las infracciones muy graves serán sancionadas con multas de 10.000.001 a 20.000.000 de pesetas.

2.– Para graduar el importe de la multa se tendrá en cuenta el grado de responsabilidad del infractor, el coste económico derivado de las obras de accesibilidad necesarias, el perjuicio directa o indirectamente causado, la reiteración de los responsables y el grado de participación de cada uno de los infractores.

3.– La imposición de una sanción no eximirá al infractor de la obligación de reponer o, en los casos de incumplimiento, de realizar la reforma del proyecto o las obras de adaptación precisas en el plazo que se fije reglamentariamente.

4.– Las multas que se impongan a los diferentes sujetos como consecuencia de una misma infracción tendrán entre sí carácter independiente.

5.– Las cuantías de las sanciones indicadas en el presente artículo podrán ser objeto de actualización por decreto del Gobierno Vasco, en función de la variación de los índices de precios al consumo.

*Artículo 20.–* Procedimiento y régimen sancionador.

1.– Las infracciones de lo dispuesto en la presente ley serán sancionadas de acuerdo con las disposiciones generales en vigor sobre régimen sancionador y previa la instrucción del oportuno expediente por órgano competente.

2.– Las personas a las que hace referencia el artículo 1 de la presente ley o las asociaciones en las que éstas se integran tendrán siempre la consideración de interesados en los procedimientos administrativos.

3.– Contra el acuerdo de archivo de las actuaciones o la resolución desestimatoria, expresa o tácita, de la denuncia o puesta en conocimiento de la Administración de posibles infracciones de las condiciones de accesibilidad, las asociaciones anteriormente referidas quedarán legitimadas para interponer los recursos o, en su caso, las acciones que consideren procedentes.

*Artículo 21.–* Órganos competentes.

Las autoridades competentes para imponer sanciones por infracciones cometidas a la presente ley serán:

a) Alkateak, dituzten eskumenen esparruan, lege-hauste arinengatiko isunak eta larriengatiko 5.000.000 pezetarainokoak jartzeko, eskala honen arabera: 10.000 biztanletik beherako udalerrietan, 1.000.000 pezetaraino; 10.000 eta 50.000 biztanle bitarteko udalerrietan, 2.500.000 pezetaraino, eta 50.000 biztanletik gorako udalerrietan, 5.000.000 pezetaraino.

b) Gaian aginpidetza duten Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioko sailetako sailburuak, dituzten eskumenen esparruan, lege-hauste arinengatiko isunak eta larriengatiko 5.000.000 pezetarainokoak jartzeko, eta betiere lege-hauste larriengatiko 5.000.001 eta 10.000.000 pezeta bitarteko isunak eta oso lege-hauste larriengatikoak jartzeko.

*22. atala.–* Erantzuleak.

1.– Nahitaezkoa den udal-lizentziarik gabe burutzen diren lan eta gainerako jardueretan, jarduera lege honetan agindutakoari egokitu behar zaionean, edo lege honek arautzen dituen gaiei dagokienez lizentziari buruzko klausulak bete gabe burututakoetan, zigortu egingo dira sustatzailea, proiektuaren egilea, obrak eraiki dituen enpresaria eta obren teknikari zuzendariak.

2.– Lege honen hauste larria edo oso larria den edukia duen udal-lizentzia baten babespeko lanetan, era berean, zigortu egingo dira proiektuaren aldeko irizpena eman duen teknikaria eta, nahitaezko txostenak aurretik izan gabe edo txostenok aipatutako lege-haustea dela-eta aurkakoak direnean, lizentziaren alde botoa eman duten udalbatzarreko kideak.

*23. atala.–* Preskripzioa.

1.– Lege-hausteak:

Lege honetan ohartemandako lege-hausteek preskribitzeko epeak honako hauek izango dira:

a) Oso lege-hauste larriek bost urteko epean preskribitzen dute.

b) Lege-hauste larriek hiru urteko epean preskribitzen dute.

c) Lege-hauste arinek sei hilabeteko epean preskribitzen dute.

2.– Zigorrak:

Lege honetan ohartemandako zigorrek preskribitzeko epeak honako hauek izango dira:

a) Oso lege-hauste larriengatik ezarritako zigorrek hiru urteko epean preskribitzen dute.

b) Lege-hauste larriengatik ezarritako zigorrek bi urteko epean preskribitzen dute.

c) Lege-hauste arinengatik ezarritako zigorrek urtebeteko epean preskribitzen dute.

a) Los Alcaldes para la imposición de sanciones por infracciones leves y por infracciones graves hasta 5.000.000 de pesetas, en el ámbito de sus competencias, con arreglo a la siguiente escala: en los municipios con población inferior a 10.000 habitantes, hasta 1.000.000 de pesetas; en los municipios con población entre 10.000 y 50.000 habitantes, hasta 2.500.000 pesetas, y en los municipios con población superior a 50.000 habitantes hasta 5.000.000 de pesetas.

b) Los Consejeros de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma competentes por razón de la materia, en el ámbito de sus competencias, para la imposición de sanciones por infracciones leves y graves hasta 5.000.000 de pesetas, y en todo caso para la imposición de sanciones por infracciones graves entre 5.000.001 y 10.000.000 de pesetas, y por infracciones muy graves.

*Artículo 22.–* Personas responsables.

1.– En las obras y demás actuaciones que se ejecuten sin la preceptiva licencia municipal cuando la actividad deba ajustarse a las previsiones de la presente ley, o con inobservancia de las cláusulas de la licencia en lo relativo a las materias reguladas por la presente ley, serán sancionados el promotor, el autor del proyecto, el empresario constructor de las obras y los técnicos directores de las mismas.

2.– En las obras amparadas en una licencia municipal cuyo contenido constituya una infracción grave o muy grave de la presente ley, serán igualmente sancionados el facultativo que hubiera informado favorablemente el proyecto y los miembros de la Corporación que hubieran votado a favor del otorgamiento de la licencia sin los informes previos preceptivos o cuando dichos informes fueran desfavorables en razón de la citada infracción.

*Artículo 23.–* Prescripción.

1.– Infracciones:

Los plazos de prescripción de las infracciones previstas en esta ley serán los siguientes:

a) Las infracciones muy graves prescriben a los cinco años.

b) Las infracciones graves prescriben a los tres años.

c) Las infracciones leves prescriben a los seis meses.

2.– Sanciones:

Los plazos de prescripción de las sanciones previstas en esta ley serán los siguientes:

a) Las sanciones impuestas por infracciones muy graves prescriben a los tres años.

b) Las sanciones impuestas por infracciones graves prescriben a los dos años.

c) Las sanciones impuestas por infracciones leves prescriben al año.

## V. IDAZPURUA
## IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO EUSKAL KONTSEILUA

*24. atala.–* Sorrera.

Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseilua sortzen da, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailari atxikitako aholku eta partehartze-organo gisa, eta bertan honako hauek egongo dira ordezkatuta: Euskal Autonomi Elkarteko herri-administrazioak, irisgarritasunean zailtasunak dituzten pertsonen eskubideen alde jardutea xede duten elkarte-erakundeetatik ordezkaritza handiena dutenak, kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeak, sustatzaile eta eraikitzaileen elkarteetatik ordezkaritza handiena dutenak eta Arkitektoen, Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen eta Bide, Ubide eta Portu Ingeniarien elkargoak.

*25. atala.–* Osaera.

Kontseiluak Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburua izango du buru, eta, gainera, honako beste hauek kide:

a) Eusko Jaurlaritzako ordezkari bat, gutxienez zuzendari-maila izango duena, honako arlo bakoitzeko: Lurralde Antolamendua eta Etxebizitza; Merkataritza eta Kontsumoa; Hezkuntza; Osasuna; Lana eta Gizarte Segurantza; Garraio eta Herrilanak; Ogasuna; Industria, eta Kultura.

b) Lurralde-historikoetako foru-aldundietako ordezkari bana.

c) Euskal Autonomi Elkarteko udaletako hiru ordezkari.

d) Irisgarritasunean zailtasunak dituzten pertsonak biltzen dituzten erakunde pribatuetatik ordezkaritza handiena dutenetako sei ordezkari.

e) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen elkarteetatik ordezkaritza handiena dutenetako bi ordezkari.

f) Sustatzaile eta eraikitzaileen elkarteetako bi ordezkari.

g) Arkitektoen Elkargoko ordezkari bat.

h) Aparejadore eta Arkitekto Teknikoen Elkargoko ordezkari bat.

i) Bide, Ubide eta Portu Ingeniarien Elkargoko ordezkari bat.

*26. atala.–* Egitekoak.

Honako egiteko hauek izango ditu Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluak:

a) Urtean behin txosten bat egitea, lege honetan ohartemandakoa zein mailataraino betetzen den ezagutarazteko, eta gero Legebiltzarrera bidaltzea.

b) Irisgarritasun arloan aginpidedun diren organoei laguntza eman eta jarduteko irizpideak proposatzea, lege honetan xedatutakoaren arabera.

c) Horren antolamendu eta funtzionamendurako araudia onestea.

d) Bere esku uzten diren beste egiteko batzuk.

## TÍTULO V
## CONSEJO VASCO PARA LA PROMOCIÓN DE LA ACCESIBILIDAD

*Artículo 24.–* Creación.

Se crea el Consejo Vasco para la Promoción de la Accesibilidad como órgano consultivo y de participación adscrito al Departamento de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente del Gobierno Vasco, en el que estarán representadas las Administraciones públicas vascas, las entidades asociativas más representativas cuya finalidad sea la defensa de los derechos de las personas con dificultades en la accesibilidad, así como las organizaciones de consumidores y usuarios, las asociaciones de promotores y constructores más representativas, y los Colegios de Arquitectos, de Aparejadores y Arquitectos Técnicos, y de Ingenieros de Caminos, Canales y Puertos.

*Artículo 25.–* Composición.

El Consejo estará presidido por el Consejero de Ordenación del Territorio, Vivienda y Medio Ambiente, y estará compuesto además por:

a) Un representante del Gobierno Vasco con rango mínimo de Director por cada una de las siguientes áreas: Ordenación del Territorio y Vivienda; Comercio y Consumo; Educación; Sanidad; Trabajo y Seguridad Social; Transportes y Obras Públicas; Hacienda; Industria, y Cultura.

b) Un representante de la Diputación Foral de cada uno de los territorios históricos.

c) Tres representantes de los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

d) Seis representantes de las entidades privadas más representativas que agrupen a personas con dificultad en la accesibilidad.

e) Dos representantes de las asociaciones de consumidores y usuarios más representativas.

f) Dos representantes de las asociaciones de promotores y constructores.

g) Un representante del Colegio de Arquitectos.

h) Un representante del Colegio de Aparejadores y Arquitectos Técnicos.

i) Un representante del Colegio de Ingenieros de Caminos, Canales y Puertos.

*Artículo 26.–* Funciones.

El Consejo Vasco para la Promoción de la Accesibilidad tendrá las siguientes funciones:

a) Emitir un informe anual sobre el grado de cumplimiento de las previsiones de la presente ley, y su posterior remisión al Parlamento.

b) Asesorar y proponer criterios de actuación a los órganos competentes en materia de accesibilidad conforme a lo dispuesto en esta ley.

c) Aprobar su reglamento de organización y funcionamiento.

d) Cuantas otras funciones le sean encomendadas.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Lege honetan xedatutakoa ezargarri izango da indarrean jarri ondoren eskatzen diren baimen, emakida eta lizentzia-mota guztiak ematerakoan.

*Bigarrena.–* Lege honetan xedatutakoa ezargarri izango zaie legea indarrean jartzen denean hasierako onespena jasota duten hirigintza-planeamendurako egiterapideei eta urbanizatze-proiektuei, behin-behineko edo behin betiko onespenaren zain daudenei. Hiru hilabeteko epea ezartzen da, egun horretatik hasita, agiria legearen aginduetara egokitzeko.

INDARGABETZE XEDAPENA

*Bakarra.–* Lege honetan xedatutakoaren aurkako maila bereko edo apalagoko xedapenak indarrik gabe geratzen dira.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio lege hau garatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

*Bigarrena.–* Lege hau indarrean jartzen denetik sei hilabeteko epearen barruan, hirialdeen, gune publikoen, eraikuntzaren, garraiobideen eta informazio eta komunikazio-sistemen irisgarritasun-baldintzak finkatuko dituzten arau teknikoak egingo ditu Eusko Jaurlaritzak. Horretarako, irisgarritasunari eta hirigintzaoztopoak kentzeari buruz egun indarrean dauden arauen bidez araututako xedapenak bateratu egingo dira.

*Hirugarrena.–* Lege hau indarrean jartzen denetik sei hilabeteko epearen barruan, onartu egingo da Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren antolamendu eta funtzionamendurako araudia.

*Laugarrena.–* Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik lau hilabete igarotakoan jarriko da indarrean lege hau.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteizen, mila bederatziehun eta laurogeita hamazazpiko abenduaren hamabian.

Lehendakaria,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

*Primera.–* Lo dispuesto en la presente ley será de aplicación en el otorgamiento de toda clase de autorizaciones, concesiones y licencias solicitadas con posterioridad a la fecha de su entrada en vigor.

*Segunda.–* Será de aplicación lo dispuesto en esta ley a los instrumentos de planeamiento urbanístico y proyectos de urbanización aprobados inicialmente en la fecha de entrada en vigor de la ley, pendientes de aprobación provisional o definitiva, estableciéndose un plazo de tres meses a partir de dicha fecha para la adaptación del documento a las prescripciones de la ley.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

*Única.–* Quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan o contradigan lo previsto en esta ley.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Se faculta al Gobierno Vasco para dictar las disposiciones que sean necesarias para el desarrollo de la presente ley.

*Segunda.–* El Gobierno Vasco, en el plazo de seis meses a partir de la entrada en vigor de la presente ley, procederá a la elaboración de las correspondientes normas de carácter técnico en las que se determinarán las condiciones de accesibilidad de los entornos urbanos, de los espacios públicos, de la edificación, de los medios de transporte y de los sistemas de información y comunicación, refundiendo y armonizando las normas referentes a accesibilidad y supresión de barreras urbanísticas articuladas a través de diferentes normas actualmente vigentes.

*Tercera.–* En el plazo de seis meses desde la entrada en vigor de la presente ley se aprobará el reglamento de organización y funcionamiento del Consejo Vasco para la Promoción de la Accesibilidad.

*Cuarta.–* La presente ley entrará en vigor a los cuatro meses de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a doce de diciembre de mil novecientos noventa y siete.

El Lehendakari,
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.